

## ORDEZKARITZA - BIH

Fakturazio erregistroak bidali ahal izango ditu zergapekoak, horren legeko ordezkariak edo ordezkari baimendu batek. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako sinadura elektronikoa balioztatu edo kualifikatuaren ziurtagiri bat erabiliko da (txartela edo softwarea).

Hirugarrenen izenean jardun ahal izateko, ordezkaritza inskribatuta egon beharko da, dagokionaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko [legeko ordezkarien erroldan](#) edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko [zerga ordezkarien erroldan](#). Azken kasu horretan, ordezkaritza 1. edukian jasota egon beharko da (aitorpenak aurkeztu eta ordezkatuaren zerga informazioa lortzeko ahalmena ematen duen berbera).

Bestalde, kontutan izan [592/2017 Foru Aginduak](#) (PDF), [gizarte lankide](#) figuraren bidez, hirugarrenen izenean fakturazio erregistroak elektronikoki bidali nahi dituztenek jarraitu beharko duten prozedura arautzen duela, 001-P edo 001-L ordezkaritza ez dutenentzat.